



ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2016ko apirilaren 24an egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.

ZERAINGO HERRI BATZARRA	1
<u>1. Sarrera</u>	2
<u>2. Informazioa</u>	2
2.1 Udal kudeaketa	2
• Zeraintzen S.A.	2
• Langileen kudeaketa	3
• Aizkorpeko udalerrien bilera	4
• Gure esku dago	4
2.2 Batzordeak	4
AZPIEGITURAK/ZERBITZUAK/INGURUMENA/HIRIGINTZA.....	5
TOKIKO GARAPENeko BATZORDEA.....	8
HERRI BIZITZA BATZORDEA.....	10
DIRU KONTUAK BATZORDEA	12

1. Sarrera

- Hirugarren herri batzarra izan da, urteko bigarrena.
- Aurreko batzarretan aipatu bezala, asmoa da urtean zehar 4 batzar egitea gutxienez. Udalaren informazioa emango da, kontuak barne. Herritarren balorazioa jasoko da. Gainera, batzordeetan landutakoa aurkeztu eta ekarpenak jasoko dira batzordeetan lantzeko.
- 2016ko herri batzarrak: urtarrilak 17, hiru hilabete ondoren apirilak 17, uztailak 17, urriak 16.

2. Informazioa

2.1 Udal kudeaketa

Udala egoki eta gardentasunez kudeatzeko urrats oso garrantzitsua eman dugu: udaleko diru kontuak ordenatzea. (aurrekontua urtarrilean onartu/ urtean urtekoa/ proiektuak egiteko partidak barneratzea...)

Eta garrantzitsuena: 2016ko aurrekontua dauzkagun baliabideetan oinarrituta dago, baita gastuak ere.

Udalean bezala, Zeraintzen sozietate publikoa eta Fundazioa ere norabide horretan jartzeko lanean ari gara eta hilabete batzuetan lortzea espero dugu.

- **Zeraintzen S.A.**

Udalaren Zeraintzen sozietate publikoaren helburua herrian etxebizitzak eta azpiegiturak sustatzea da, baina 15 urteko ibilbidean ez du helburu hori lortu. Sozietate publiko bat ezin da gauza baterako sortu eta beste baterako erabili.



Zer egin du 15 urte hauetan? Batez ere, Udalaren diru laguntzak gestionatu. Lortzen zituzten diru laguntzetatik saiatu gastu finkoak estaltzen, 70.000 €. Hala ere, urte askotan ez da lortu estaltzea. Diru laguntza asko edo gutxi lortuta ere gastu finkoa ez da aldatzen, 500.000 €-tako edo 150.000 €-tako laguntzak jaso arren, beti gastu finkoak 70.000 €-koak izan dira.

Horrela, fakturak behar eran egin izan dituzte behar zena justifikatzeko, askotan faktura ez errealak erabiliz. Gurpil bat. Proiektuak ez ziren askotan bere osotasunean egiten, justifikatzeko nahikoa zena eginez bakarrik.

Gure ustez hori ez da egokia eta 2015eko ekitaldiaren itxierarekin enpresak duen benetako errealitatea azaleratu dugu, orain arte egindako irregulartasunei bukaera emanaz.

Sozietateak galera handiak ditu eta ez diogu etorkizun handirik ikusten. Baliagarria izan daiteke epe motxean etxebizitzak sustatzeko? Epe ertainera itxiarazi egingo digute, aztertzen ari gara zer egin. Aurten bertan ezinbestekoa da Zeraintzenek dituen gastuak berdimentsionatzea.

70.000 €-tako gastu finkoak jasanezinak dira Zerain bezalako herri txiki batentzat. Ekonomikoki (krisi testuinguruan/ udal txikia/teknikoa lanaldi osoan) eta etikoki (lanaldi osoa izan arren astean bi egun presentzial bakarrik) aukera desberdinak aztertzen ari gara.

- **Langileen kudeaketa**

- **Garbitzailea.**

Udaleko garbitzailea azpikontratatuta dago, ONE enpresaren bidez, lanaldi murriztuaz, egunean 3 ordu eta erdi.

Azken urteetan garbitu beharreko eraikinak gero eta gehiago dira dedikazioa handitu gabe. Maiatzetik aurrera plazako komunak ere garbitu beharko ditu eta enpresarekin dugun kontratua maiatzean amaitzen denez, egoera aztertzen ari gara zuzentzeko.

Zuzenean kontratatzeko asmoa dugu lanaldi handiagoarekin, behin behineko laboral moduan. Ekonomikoki horrek jaitziera suposatuko digu



aurrekontuan. Dudarik gabe lan egoera hobetuko litzaioke langileari eta hori da asmoa.

- **Aizkorpeko udalerrien bilera**

Aizkorpeko 5 herrietako udal ordezkariak urtean behin elkartzeko dinamika dago. 2015eko bilera urtarrilaren 23an egin dugu Zerainen. Bertan eskualdeko hainbat gai landu genituen eta 2016ko bilera azaroan egitea erabaki zen.

- **Gure esku dago**

Udalak babes osoa eman dio dinamikari. Behar duten laguntza eskainiko diogu kontsultari begira. Herritar guztiak animatu nahi ditugu parte hartzera.

Lehenengo asteko ekitaldian, Araman, ordezkaritza zabala, hamar bat, egon zen, gaur egungo udal taldetik 3 lagun eta aurrekotik ere bai. Herrika argazkiak atera ziren eta Zeraingoan ez zen posible izan elkarrekin argazki bat ateratzea. Oraingo udal taldekoek besteak gonbidatu zituzten arren, haiek ez zutelako nahi izan.

2.2 Batzordeak

	BILERA KOPURUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Tokiko Garapena	2	3	5	2 bilera 8 lagun
Herri Bizitza (Kultur Etxe)	3	5	3	3 bilera 8lagun
Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza	4	4	5	4 bilera 9 lagun
Ogasuna eta diru kontuak	1	2	1	Bilera 1 3 lagun
GUZTIRA	10	14	14	10 bilera 28 lagun



AZPIEGITURAK/ZERBITZUAK/INGURUMENA/HIRIGINTZA

Bilerak udalean izaten dira eta 9 lagun (4 emakume eta 5 gizon) elkartzen dira. Hilean behin, ostegunetan, arratsaldeko 18:00-19:30 bitartean.

Hurrengo bilerak: ekainak 2 eta ekainak 30.

- **KOMUN PUBLIKOA:** Proiektu proposamena batzordean aurkeztu eta landu zen. Hainbat aldaketa egin ziren komun komunak (genero desberdintasun gabekoak) izateko.
- 6 enpresa gonbidatu ditugu aurrekontua aurkeztera eta 4 aurrekontu jaso ditugu. Prezioa eta exekuzio epea izan dira hautaketarako irizpideak. Bai Reformas enpresari esleitu diogu. Aste Santu ondorenean hasi dira lanak. Eta maiatzean bukatzea aurreikusten dugu.
- **HONDAKINEN BILKETA:** Herrian dugun birziklapen maila txikia da inguruko herrietakoa kontuan hartzen badugu. Maila hori handitzea komeni ingurumenarengatik eta baita ere hondakinak biltzeko aurrekontua merkatzea lortuko genukeelako.

Hainbat neurri proposatu dizkiogu Sasetari:

- Bilketa gunean giltzez itxi eta edukiontzi itxiak jarri.
- Horrez gain Barbariko auzotarrek bertan gunek txiki bat jartzeko eskatu dute eta maiatzerako martxan egongo da.
- Udal langileek kudeatuko dute. Opor leku elkaratearen ondoan egongo da eta plastikoa, papera, beira eta errefusa biltzeko aukera egongo da.

Aizpeako auzotarrekin bilera egingo dugu beraiekin gaia aztertzeko.

- **ZUNTZ OPTIKOA:** Proiektua atzerapenarekin dator eta dagoeneko Seguran amaitzen ari dira eta Seguratik Zeraina kaskora etorriko dira. Gaiari jarraipen egokia emateko helburuarekin batzordea proiektuaren arduradunetako batekin elkartu zen apirilean.



Telefonicarekin harremanetan gaude, zuntzaren instalazioa Zerainen nondik nora egingo duten zehazten ari direnez ahalik eta eremu zabalena har dezan eta kaskoan eta Barbarin eginak dauden akometidak erabil ditzaten lortzeko.

- ZERAIN-SEGURA OINEZKO BIDEA: Bi diapoak erakutsi. Mendarteko bete lana amaitzeko lanekin batera oinezko bidea egingo da. Udalak diru partida bat dauka horretarako, betelanaren itxierarekin beste lan batzuk egingo ditu Iturriozek eta diru laguntza eman digu Goimenek.

Ahal den guztia egingo dugu. Olabideko bidegurutzetik gora, kaltzarekin lotuko litzateke, bertatik pasatzea proposatuz. Diru laguntza eskatu dugu kaltzadaren zati hori konpontzeko (zubia eta ingurua).

- GOI TENTSIOA: ez dago berririk, Nafarroako Gobernuak zerbait egingo duen zain, baina beraiantzat bigarren mailako gaia dela dirudi. Udaberrian mendi martxa bat egiteko asmoa du plataformak.
- ENERGIA BERRIZTAGARRIA: Biomasa izenarekin ezagutu dugun proiektua aztertzeko beharra dago. Frontoi ondoko zuloarekin zer egin ere aztertuko da gaia osotasunean aztertzen denean.

Aurtengo aurrekontuan Kultur Etxeko galdara erosteko partida bat dago eta batzordeak maiatzean aztertuko du zer motatako instalazioa egin behar den efizienteena izateko. Erabakiarekin EVeri diru laguntza eskatuko diogu.

- ERREMENTERI: gestioak egiten ari gara eraikina biziberritzeko behar den finantzazioa lortzeko.
- ETXEBIZITZAK: 3 lur sail publiko daude eraikitzeke baimenarekin eta horietatik merkeena eraikitzeke aparkalekukoa da.

Gazteen emantzipazioa eta adinekoen bizitza autonomia errazteko helburuarekin proposamen bat lantzen hasiko gara laster batzordean perfil hori duen jendearen ekarpenekin.



Goimenek diru laguntza eman digu, Antxaputxuko goiko plan partzialaren azterketarekin hasteko.

- SANEAMENDUA: Zerainen 2007/2011an egin ziren saneamendu lanak. Bi adar desberdin egin ziren:
 - 1. zatia, behekoa: Udala eta Markel Olanoren Kabinetearekin lortutako akordio politiko baten ondorioz finantzatu zen (%100 Aldundiak) 680.007 € .
 - 2. zatia goikoa: Udala eta Ormazabal Diputatuaren arteko akordio politiko baten ondorioz finantzatu zen. Udalak egin zuen, Ur kontsorzioak 148.000 € eman zizkion, Aldundiak 100.000 €, jabeek, bakoitzak 900 € eta Udalak zenbat jarri zuen ez dakigu.

Bi kasuetan teknikoen iritziaren kontra egin zen. Sare honen parte bat amaitu gabe gelditu zen, herritarrek ordaindu zuten arren, Laiotz Lasustegi eta Errekalde auzoetan.

Udalean ez dugu aurkitu falta den zati horri dagokion plangintzarik, ezta diru partidarik ere. Zati hori Mutiloako sareari lotu behar zaio eta Mutiloako proiektua aurten egingo denez harremanetan gaude Ur kontsorzioa eta Aldundiarekin arazo horri irtenbidea aurkitzeko.

Gestio horietan konturatu da Ur Kontsorzioa irregulartasun batzuek.

- MEDIKUAREN KONTSULTA: Osakidetza mediku kontsulta tokiz aldatzea eskatu du sartzeko /irteteko zailtasunak direla eta. Itxoin gelara pasatzeak suposatuko duen obra eta gastuak lantzen ari da arkitektoa.
- BASERRI BIDEAK: Baserri bide guztien egoera dokumentu batean jaso da eta Goimenera bidali. Nahiko egoera onean daude orokorrean baina badira behar batzuk. Diru laguntza berezi bat aterako du Aldundiak epe laburrean.
- OBRA TXIKIAK: Aurrekontuan partida txiki bat dago obra txikiak egiteko, ideia da udal langileek egitea eta segurtasun arazoak eta



hondatuta dauden gauzak konpontzea. Oso baliagarria herritarrek eman diguten informazioa.

Hainbat obra txiki eta konponketa egiten ari gara. Farolak margotu, Ostatuko aparkalekua, Maixuneko eskailerak, Eliz atzeko barandak, plazako arraska, loreontziak berritu, parkeko segurtasuna....

TOKIKO GARAPENeko BATZORDEA

Udaletik Jose Mari eta Amaiak parte hartzen dute. Bi bilera egin ditugu eta hurrengo Maiatzaren 16an izango da, astelehenetan 10:30ean udaletxean.

Batzorde honetan gai sozioekonomikoak lantzen dira, lehen sektorea, turismoa, Partzoneria, Zerralan eta Aizkori Aratz parkea

- **SAGARDOTEGIAK:** Denboraldi honetan, astean zehar sagardotegiak nahiko juxtu omen dabilta baina hori erabat aldatzen da asteburuetan, nahiko ondo ari baitira lanean.
- **ZERRALAN:** Zerrategia berriro martxan jartzeko eskaria egin dute sozio batzuk, Donostia 2016 eta ALBAOLAKO proiektuaren ondorioz gelditu aurretik funtzionatzen zuen bezala martxan jarraitu dezan. Goimenek bazkide guztien bilera deituko du bertan erabakitzeke martxan jarriko den edo ez.
- **PARTZONERIA:** Partzoneriako mendien aprobetxamenduari buruzko ikerketa egin dute. Bertan hurrengo 100 urteetan egin beharreko mendien kudeaketa nola egin planteatu dute (25 urteko zulo bat dago, kudeatu ez dena). Urbiako pista, azken 10 urteetan Gipuzkoako Foru Aldundiak konponketak egiteko dirua jarri du, ez horrela Arabakoak. Saiakera egiten ari da Partzoneriako junta bidea hiru erakundeen artean konpontzeko baina oraingoz ez dago adostasunik.
- **LEHENENGO SEKTOREA:** Artzain eta abeltzainen balantzea ,Juanjok dio, bera artzaina izanda beti behar izaten dituela ganaduarentzako



belardi edo lur gehiago, eta bere ustetan beharrezkoa izango litzatekeela lur edo belardiak berrantolatu. Horrekin lotuta iaz hasitako Lur bankuen proiektua aurten berriro eskatu da Goimenen.

Minetako lur publikoetan ganadua larreetan edukitzeko kudeaketaz ere hitz egin da. Aldundiari eskaera egin zitzaion.

Barbari eta Urruztiko baso publikoak Gipuzkoako Foru Aldundiak behar bezala kudeatzeko egin diren gestioen berri eman da.

- **FUNDAZIOA:** Aterpetxea homologatzeko beharrezkoa izan da inbertso batzuk egitea, giltzadun takila berriak jarri dira eta oheak tokiz mugitu dira beraien arteko tartea handiagoa izan behar duelako. 2.500 €ko inbertsioa izan da eta udal langileen lana ere bai.
- **TURISMOA:** Turismo bulegoa da guztiaren oinarria, bertatik ateratzen baitira proiektu berrietarako ideiak. Goierrin soilik bi bulego daude, gurea eta D'elikatuz zentroa, Zeraingoa K kalitatea adierazten duen ikurra mantentzen duelako mantentzen dela adierazi du Aldabe kooperatibako kideak.

Bisitarien datuak hurrengoak dira:

- 12.715 - 2014 urtean
- 13.922 - 2015 urtean
- **OSTALARITZA:** Ostatu tabernan hainbat inbertsio egin behar izan dira, frigorifikoak, izotz kamerak eta telebistak Urkiren jabetza baitziren. 4000euroko inbertsioa egin da beharrezko ekipamendua izan dezaten baldintza onetan ireki ahal izateko.

Orain Mandioren txanda iritsi da eta izotz kamerak aldatu dira 2000 €ko inbertsioa egin ondoren.

Rubenek kartzela barruan bideo informatibo bat jartzea proposatu du, batzuetan jatorduetan etortzen baita jendea kartzela ikustera eta guztiarekin ezin dute.

- **AIZKORRI ARATZ PARKEA:** Parkea babesteko arau berriaz eta honen erabileran izango duen eraginaz informatu da, azkenik udaletxeen

presioak, ehiztarien elkarteak, abeltzainak etab... hainbat kaltetuen parte-hartzearekin lege berri bat garatzeko konpromisoa lortu da.

- PROIEKTU BERRIAK: Furgoneta bat jartzea proposatu da, azoka desberdinetan zehar Zerainen bertan ekoizten diren produktuak saltzeko: sagardoa, gazta, sagar dultzea, mermeladak, intxaurrak, urrak, babarrunak etb. aztertuko da. Baldintza eta norma piloa bete behar delako.

HERRI BIZITZA BATZORDEA

Herri Bizitza batzordeak lehengo Kultur Etxek lantzen zituen gaiak lantzen ditu, beste hainbat gaiekin batera, hala nola, hezkuntza, kirola, ongizatea, kultura, berdintasuna, jubilatutak, ...

Bilerak Kultur Etxen izaten dira, hilean behin astelehenez, 18:15etatik 19:30etara. Hurrengo bilera Ekainak 13a izango da.

- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA: Martxoak 8an ospatu zen, lehenengo Toti Martinez de Lezearen “Urak Dakarrena” liburuko istorio baten irakurketa egin zen herriko emakumeen ahotsean eta gero Ostatun afari batekin amaitu zen ospakizuna.



- **KULTUR ASTEA:** Aurten, udazkenean ekintzak pilatzen zirela eta udaberrian ekintza asko ez zegoela ikusita, eta gainera Segura-Zerain mendi lasterketa eta San Ixidro eguna aste berean tokatzen zirela ikusita, kultur astea aurreratzea erabaki zen. Honakoa da aurkeztutako programa eta etxeetara dagoeneko bidali dena:

2016eko ZERAINGO KULTUR ASTEA

- **Maiatzak 7, larunbata: 16:00etan. I. SEGURA-ZERAIN MENDI LASTERKETA, SANSON PROBA.**
Segura eta Zeraingo mendi ibilbideetan barne, mendi lasterketa. Arratsaldeko 4etan Segurako plazaik irten eta bi ibilaldi ezberdin egiteko aukera, bata 15.3 Km-takoa eta bestea 24 Km-takoa. Ibilbidean Zeraingo plazaik pasa eta Mendi aldetik Txoritxegiko haitz aldera edo Larraondo alderako bidea hartuko dute. Amaiera iluntzean Segurako plazan.
- **Maiatzak 9, astelehena: 19:00etan Kultur etxean:**
Joxe Ramon Agirre "Marron" mendizalearen MONGOLIARI buruzko ikus-entzunezkoa.
- **Maiatzak 10, asteartea: 19:00etan Kultur etxean:**
PARTZONERIAri buruzko hitzaldia Juan Luis Moragues-en eskutik; Gipuzkoako eta Arabako partzoneria: bere eboluzioa denboran.
- **Maiatzak 11, asteazkena: 19:00etan Kultur etxean:**
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK Goienerren eskutik.
- **Maiatzak 12, osteguna: 19:00etan Kultur etxean:**
EUSKAL ESTATUA IMAGINATZEN azterketaren aurkezpena. Ipar Hegoa Fundazioa eta Parte Hartuz

ikerketa taldearen eskutik. Hizlaria: Mikel Saratxo (EHUko irakaslea).

- **Maiatzak 13, ostirala: 16:30etatik aurrera HAURREN MARRAZKI RALLYA** plazan edo frontolan.
19:00etan **VII. PATATA TORTILA LEHIAKETA.** Ondoren atari merienda pilotalekuan bertan. (Parte hartzeko, gubilenez 2ko eta gehienez 4ko taldeek izena eman beharko dute Ostatu edo Mandio tabernan maiatzaren 12rako. Sua eta lehengailak antolakuntzak jarriko ditu).
- **Maiatzak 14, larunbata: TAILERRA**
10.30etan tallerren hasiera. 13.30etan pintxoak. Tailerra aurrerago zehaztuko da.
- **Maiatzak 15, igandea: SAN IXIDRO EGUNA**
13:00etan Herriko Komun publikoen Inaugurazio ekitaldia eliz atarian.
14:00etan Herri bazkaria. Mendarteko mahastiko zozzak sutarako erabiliz, herriko artzainen arkume jana. Haurrentzako eta jateko ohitura ezberdina dutenentzako menu ezberdina egongo da aukeran (Tikeak) 12 eurotan salgai Ostatu eta Mandio tabernetan Maiatzaren 11ra arte. 12 urteik beherako haurrek dohaiarik).

Oharrak:

- Hitzaldiek ordu bete inguru iraungo dute.
- Jubilatutako bazkaria udazkenean mantenduko da aurten.

- **HERRIKO JAIETAKO EGITARAUAREN ETA URTEKARIAREN AZALA AUKERATZEKO LEHIAKETA:** Aurten ere lehiaketa bat egitea proposatu da eta dagoeneko martxan dago. Edozein Zeraindarren dauka parte hartzeko aukera. Animatu! Honakoak dira arauak:
 - **A TALDEA:** 2005etik gaur egun artekoak. Festetako egitarauaren azala egingo dute.
 - **B TALDEA:** 2004 edo lehenagokoak. Urtekariko azala egingo dute.

AURKEZTEKO EPEA: Maiatzaren 31, Udalean

IRABAZLEEN AUKERAKETA: Ekainean, herritarren bozka bidez.

IRABAZLEAK: Ekainaren 23an, San Juan bezpera festan.



- **FESTAK:** Batzordean festak antolatzen ari gara poliki-poliki gero azken momentuan ez berandu ibiltzeko. Batez ere, musika taldeek presa izaten dute eta hauek ia erdi-lotuta ditugu. Beste gauzak ekainean egingo den bilera irekian landuko dira.
- **FRONTOIKO ERABILERA:** Frontoiaren erabileran aldaketa batzuk egin dira erabilera hobetze aldera. Frontoia beti irekita egongo da eta herritarrentzat dohain izango da dena. Kanpotarrek argiarengatik 5€ ordaindu beharko dute.
- **KULTUR ETXEKO ERABILERA:** Frontoian bezalaxe Kultur Etxeko giltzaren erabilera ere zehaztu egin da, edozein herritarrek erabili nahi badu nola doan jakiteko. Herrian 6 giltza kopia daude kultur etxeokak:
 - Xabi, Joxean eta Elenak.
 - Eskolan.
 - Mandio taberna-dendan.
 - Udalean.

Kultur etxeoko erabilpenaren eskaria udalean egin ondoren, udalak kultur etxea erabiltzeko moduan dagoela ikusi ondoren, eskaria egin duen taldeak giltza Mandio tabernatik hartu eta utzi beharko luke, Mandio taberna irekita dagoen egunetan.

Eskaria egun puntual batekoa bada (hilean behin, noizbehinka...) eta Mandio itxita badago udaletik hartu eta itzuli beharko dira giltzak.

Mandio itxita dagoen egunean behar badira giltzak eta asteroko saioa bada, udaleko kopia horietako giltza bat talde horren arduradunari emango zaio berak izan dezan ekintzak jarraitzen duen bitartean. Esaterako, momentu honetan Uharka Abesbatzak giltza bat du astelehenero elkartzen direlako.

- **SEGURA-ZERAIN MENDI LASTERKETA:** Maiatzaren 7an izango da eta Josu Etxeberria ibili da antolatzaile taldean Zerain ordezkatzan.



Informazio guztia Zeraingo eta Segurako web guneetan zintzilikatu dute.

- **LIBURUTEGIA:** Irailetik aurrera erabilera berria emango zaio, jasotako diru-laguntza batengatik. Diru hau nola gestionatu eta erabilera zehazteko, aurrerago bilera bat egingo da interesatu eta erabiltzaile guztiekin.
- **2015EKO AITORPENA:** Uema-tik jaso da deialdi bat, 2015eko aitorpena euskaraz egiteko esanez. Herri batzarrean aipatu zen eta XaguArtean ere aipatuko da. Gonbidapena luzatzen dizuegu, aurtengo aitorpena euskaraz egiteko.

DIRU KONTUAK BATZORDEA

2015 BEHIN BETIKO ITXIERA

2015eko behin betiko diru kontuak nola itxi diren aurkeztu da. Ikus daitekeenez ia 50.000 €ko defizitarekin itxi da urtea.

	AURREKONTUA	ITXIERA	DESBIDERATZEA
SARRERAK FINKOAK	367.626,00 €	348.465,00 €	-19.161,00 €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	150.374,00 €	146.885,00 €	-3.489,00 €
DENERA	518.000,00 €	495.350,00 €	-22.650,00 €
GASTU FINKOAK	391.170,00 €	383.710,63 €	-7.459,37 €
ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	156.830,00 €	161.559,99 €	4.729,99 €
DENERA	548.000,00 €	545.270,62 €	-2.729,38 €
EMAITZA	-30.000,00 €	-49.920,62 €	-19.920,62 €



Legeak hala eskatuta Gipuzkoako Foru Aldundiak urtea defizitarekin itxiz gero bideragarritasun plan bat edo ekitaldi honetan edo hurrengotan defizita nola ordainduko dugun adieraztea eskatuko digu. Hainbat aukera aztertu ondoren 2016ko ekitaldian ordaintzea erabaki dugu modu honetara:

ZERAINZEN,S.A AURREKO EGOERA

EREMUEN BALOREA	525,954,81 €
UDALEKO ZORRAK	35.853,90 €
UDALETIK PRESTAMOA	104.000,00 €

ZERAINZEN,S.A ORAINGO EGOERA

EREMUEN BALOREA REALA	63,579.91 €
UDALEKO ZORRAK	0 €
UDALETIK PRESTAMOA	79,000,00 €

- 25.000 € ZERAINZEN, S.A tik.

Udalak ZERAINZEN, S.A-ri 35.853,90 €-ko zorrarekin itxi zuen urtea. Bestalde enpresa publikoaren diru-kontuen ardura duen gestoriak aurkeztutako txostenean ZERAINZEN,S.A-k udalarekin duen zorraren berri jaso genuen: 104.000 €.

Gauzak horrela, erabaki dugu Aldunditik jaso dugun funtsa foralaren lehen ordainketatik (otsailekoa) ZERAINZEN, S,A-ri zor dioguna ordaintzea eta ondoren, diru hori baliatzea ZERAINZEN,S.A-k udalari zor dionaren parte bat ordaintzeko, hain zuzen 25.000 €. Diferentzia ZERAINZEN,S.Ak egin beharreko hainbat ordainketa egiteko baliatu da, soldatak eta Gizarte segurantzaz.

- 20.000 €, urteko aurrekontutik lortzea espero dugu, ZERAINZEN, S.A-ko langileen egoera erregularizatu ondoren aurreztuko dugunarekin.



- 4.920,62 € lortuko ditugu Biodibertsitateko diru laguntzak zuritzeko egin beharreko lanetatik gastuak murriztuta.

2016 AURREKONTUAREN JARRAIPENA

Arestian aipatutakoak 2016ko aurrekontuan aldaketak ekarri ditu. Ondorengo taulan ikus dezakezue zeintzuk diren aldaketa horiek:

2016	GASTUAK	
	URTARRILA	OTSAILA
MAILEGUAK	38.350,00 €	38.350,00 €
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	111.570,00 €	111.570,00 €
HIRIGINTZA	8.000,00 €	8.000,00 €
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	11.500,00 €	11.500,00 €
HILERRIA	20.200,00 €	20.200,00 €
GARBIKETA	23.300,00 €	23.300,00 €
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	22.633,80 €	22.633,80 €
OSASUNA+JUBILATUEK	5.650,00 €	5.650,00 €
HEZKUNTZA PROIEKTUA	14.800,00 €	14.800,00 €
SUSTAPENA	14.000,00 €	14.000,00 €
EUSKERA	3.300,00 €	3.300,00 €
ETA AZOKA	14.700,00 €	14.700,00 €
TURISMOA	21.500,00 €	21.500,00 €
ADMINISTRAZIO OROKORRA	30.101,00 €	30.101,00 €
GASTU FINKOAK	339.604,80 €	339.604,80 €
SOLDATA	80.000,00 €	80.000,00 €
DEFIZITA 2015		-20.000,00 €
GASTU FINKO OROKORRAK	419.604,80 €	399.604,80 €
DIRULAGUNTZEKO GASTUAK	25.801,80 €	25.801,80 €
DEFIZITA 2015		-4.920,62 €
(DIRULAGUNTZAK)	25.801,80 €	20.881,18 €
DENERA	445.406,60 €	420.485,98 €

	SARRERAK	
	URTARRILA	OTSAILA
IBILGAIUEN -ONDASUNAK	66.700,00 €	66.700,00 €
OBRAKO ZERGAK	8.000,00 €	8.000,00 €
TASAK (ZABORRA-FRONTOIA)	30.000,00 €	30.000,00 €
FORU FUNTSA	269.743,00 €	269.743,00 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	6.800,00 €
SARRERA FINKOAK	381.243,00 €	381.243,00 €
EUSKO JAULARITZA:BIODIBERSITATE KO DIRULAGUNTZA	44.163,60 €	44.163,60 €
FORU ALDUNDIA : LURRALDE OREKA	20.000,00 €	20.000,00 €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	64.163,60 €	64.163,60 €
ZERAINZEN, S.A MAILEGUA		25.000,00 €
DENERA	445.406,60 €	470.406,60 €
DEFIZITA 2015		-49.920,62 €
DENERA		420.485,98 €

PROIEKTU BERRIAK

Aurreko Herri Batzarrean proiektu berriak egiteko eskatutako diru laguntzak aurkeztu genituen. Horietako batzuk dagoeneko eman dizkigute. Aurreko taulan ikus dezakezue gaur egunean zein den diru laguntzen egoera 2016rako.

Dagoeneko onartu dizkiguten diru laguntzak: irisgarritasun plana eguneratzeko, plazako komunak egiteko, plan partzialaren azterketa hasteko, Zerain - Segura oinezkoen bidea egiteko, liburutegiko ekipamendua erosteko, muga eguneraketarekin jarraitzeko eta biodibertsiatetarako.



	ESKATUTA			EBAZPENA			
	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA	UDALA	DIRULAGUNTZA	JUSTIFIKAZIOA	KOSTOA	UDALA
EBAZPENA NEGATIBOAK							
KALTZADA	289.412,00 €	130.235,40 €	159.176,60 €	- €			- €
OSTATUKO ATERPEA	52.520,33 €	26.260,17 €	26.260,17 €				- €
IGOGAILUA	5.346,35 €	2.673,18 €	2.673,18 €				- €
AZPIEGITURA - ZERBITZUAK-HERRIGINTZA							
IRISGARRITASUNA	5.272,00 €	2.636,00 €	2.636,00 €	3.876,50 €	5.272,00 €		1.395,50 €
KOMUNAK	12.768,19 €	6.384,10 €	6.384,10 €	7.660,00 €	12.768,00 €	17.400,00 €	9.740,00 €
KALTZADA	45.375,00 €	31.762,50 €	13.612,50 €				
PLAZA EGOKITU	10.000,00 €	6.000,00 €	4.000,00 €				- €
PLAN PARTZIALA	15.527,00 €	7.763,50 €	7.763,50 €	5.713,00 €	9.500,00 €		3.787,00 €
BIDE PEATONALA	39.000,00 €	23.400,00 €	15.600,00 €	13.800,00 €	23.400,00 €		9.600,00 €
BASERRI BIDEAK	15.000,00 €	9.000,00 €	6.000,00 €				- €
HERRI BIZITZA							
EKIPAMENDUA	15.916,67 €	7.958,34 €	7.958,34 €	2.598,00 €	4.331,00 €		1.733,00 €
EUSKARA	9.644,00 €	7.644,00 €	2.000,00 €				
FRONTOIKO EKIPAMENDUA	4.627,36 €	4.627,36 €	0,00 €				
TOKIKO GARAPENA							
MUSEOTAKO							
BIODIBERSIDEA	73.606,00 €	44.163,60 €	29.442,40 €	28.118,20 €	35.813,71 €		7.695,51 €
MUGEN EGUNERAKETA	13.000,00 €	7.800,00 €	5.200,00 €	7.150,00 €	13.000,00 €		5.850,00 €
	607.014,90 €	318.308,13 €	288.706,77 €	68.915,70 €	104.084,71 €	17.400,00 €	39.801,01 €

Aizpitako igogailua egokitzeko, Ostatuko aterpea egiteko eta Kaltzada balioan jartzeko proiektu integrala ez dizkigute onartu.

- **IRIGARRITASUNA:** 3.876 € udalerraren irisgarritasun plana eguneratzeko, arkitektoa dagoeneko lanean ari da.
 - **PLAZAKO KOMUNAK:** 2016ko aurrekontuan 10.000 € utzi ditugu horretarako eta 7.660 € onartu dizkigu Goimenek. 17.400 € ko proiektua da, beraz, Udalak 9.740 € jarriko ditu aurreikusi bezala. Nahiz eta hasierako aurrekontu orokorra pixka bat handitu den zaharberritzea denez aurreikus gabeko gauzatxo batzuk egin behar izan direlako. Zerbitzuen batzordeak kudeatu du proiektu hau.
 - **KALTZADA:** Berrito aurkeztu da diru laguntza oraingoan Gipuzkoako Foru Aldundian, bereziki zubi ingurua konpontzeko oso egoera kritikoa dagoelako.
 - **PLAN PARTZIALA:** 15.527,7 €ko aurrekontua aurkeztu genuen jabetza publikoko lurretan plan partziala egiteko azterketarekin hasteko. Honen helburua da aurrerago etxebizitzak egiteko baldintzak sortzen hastea.
- 5.713 € onartu digu Goimenek, arkitektoak gaia mahai gainean dauka. Zerbitzuak lantaldea kudeatuko du proiektu hau.



- **ZERAIN-SEGURA OINEZKO BIDEA:** 2016ko aurrekontuan 10.000 € utzi ditugu horretarako Goimenek onartu dizkigun 13.800 € ekin 23.800 € ditugu obra hori egiteko. Aurrerago ikusiko da beharrezkoa den auzolanaren bidez lan batzuk egitea . Zerbitzuak lantaldea kudeatuko du hau.
- **BASERRI BIDEA:** Baserri bide guztiak katalogatu dira eta Goimenera bidali ditugu, laster Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntza aterako du baserri bideak konpontzeko eta beharrezkoa izango da aurrelan hau eginda edukitzea. Orokorrean baserri bideak ondo daude baina badira konponketa beharrak eta baita ere mantentzea hobetzeko lanak. Zerbitzuak batzordea kudeatuko du hau.
- **EKIPAMENDUA:** 15.916 € ko aurrekontua aurkeztu genuen kirol, kultura eta tabernetako ekipamenduak erosi eta hobetzeko. Bakarrik liburutegirako ekipamendua onartu digute, hain zuzen 2.598 € guztira 4.331€ tik. Beraz, udalak 1.733€ erabiliko ditu aurrekontutik. Herri bizitza lantaldeak kudeatuko du proiektu hau nahi duten herritar guztiekin batera.
- **EUSKERA:** Euskararen arloan Gipuzkoako Foru Aldundian eskatu dugu euskaltegietako matrikulentzat, Xagu artea berripaperarentzat, urtekariarentzat eta udako udaleku irekientzat. 7. 644€ eskatu ditugu oraindik ez dute erantzun. Herri bizitza lantaldeak kudeatuko du proiektu hau.
- **FRONTOIKO EKIPAMENDUA:** Berriro eskatu dugu kirol ekipamendua hobetzeko diru laguntza, batez ere frontoiko ekipamendua erosteko.
- **MUSEOTAKO:** Hizkuntza desberdinetan foiletoak ateratzeko baliatu nahi da diru laguntza.
- **MUGEEN EGUNERAKETA:** 7.150 € onartu dizkigute jabego pribatuko lur mugen eguneraketa egiteko katastroan eta mapetan. laz hasi zen lan hau lur publikoekin eta bi hiru urte beharko dira udalerrri osoa egiteko.



- BIODIBERSITATEA: 73.606 € eskatu ziren eta 28.118,20 € onartu dituzte. Lanak dagoeneko eginda daude eta udalaren ekarpena udal langileen lanarekin justifikatzen da.